

Irurako emakumeek historian bete duten papera ikertuko dute

Irurako Udaleko Berdintasun sailak ikerketa beka bat deitu du emakumeen ekarpena ikertzeko helburuarekin; aukeratutako ikertzaileak sei hilabeteko epean burutuko du lana //4

Euskal Azoka egingo dute Ikaztegieta hilaren 25ean, 20 posturekin

Zazpigarrenez egingo dute azoka, «inguruko ekoizleak ezagutarazi eta herriari bizi pixka bat emateko»; askotariko postuak eta pintura tailerrekoen lanak izango dira ikusgai //2

Maila mantentzeko partida erabakigarriak ditu Tolosalak

Areto futboleko talde tolosarrak estreina urtea du Hirugarren Mailan; mailaz ez jaisteko borrokan, bost partida geratzen zaizkie bigarren fasean //7



TOLOSA

%75 ERA IRISTEA HELBURU

Tolosako Udalak hondakinen bilketa datuak hobetzeko abian jarritako sentibilizazio kanpainak «erantzun oso ona» izan duela esan du; hondakinen %70 bereizten da gaur egun, eta 2023 urterako %75era igo nahi dute //5

JOSU ARTUTXA



ZATOZ EUSKALTELERA HILAREN 30A BAINO LEHEN ETA ESKURATU REALAREN KAMISETA OFIZIALA

Zain gaituzu **Tolosako eta Beasaingo** gure dendetan.
Ez zaitez gabe geratu...



Ikaztegieta 2017an egin zen azken azokako postuetako bat. REBEKA CALVO

Urte hasierako erabakiari eutsiz, Euskal Azoka egingo dute Ikaztegieta

Kultura Batzordeak urte hasieran erabaki zuen hilaren 25ean, 7. Euskal Azoka antolatzea; nahiz eta, «egoerarik onena ez izan» segurtasun neurri guztiak betez egingo dute

Eneritz Maiz Etxarri
Ikaztegieta

Ondo bidean, Ikaztegieta Udaleko Kultura batzordeak hilaren 25ean, igandean, 7. Euskal Azoka egingo du, plazan. Euskal Herriko produktuekin osatutako azoka 10:00etan irekiko dute, eta 14:00ak arte egongo da zabalik.

Manex Saez de Egilaz da kultura zinegotzia, eta esan duenez, «egoerak hala behartuta» iaz atzeratu egin behar izan zuten azoka. «Urtarrilean berriz Kultura Batzordea martxan hasi zenean, aurtengorako apustu bat egitea pentsatu genuen, eta azoka martxan jartzea erabaki genuen osasun egoerak hobera egingo zuela kontuan hartuta», argitu du. Eguna gerturatu ahala, ordea, berriz ere, egoerak okerrera egin du: «Azken egunetan egunero egoerari begira gaude, baina momentuz aurrera goaz antolaketa guztiarekin. Hori bai, herria itxiko baligute edo egoera asko okertzen bada bertan behera uzteko erabakia buruan dugu». Garbi du inguruko herri asko gorrian daudela eta ezingo dutela joan, baina «herritarrak eta libre dauden herrietako jendea» gerturatuko direlakoan da.

Urte hasierarekin batera hasi ziren kultura batzordeko kideak azokari forma eman eta postuak lotzen. «Batik bat, inguruko ekoizleei eta herritarrei, edo bere produktuak ezagutarazi eta plazaratu nahi dituenari aukera txiki bat emateko ideiarekin antolatu dugu», gaineratu du. Era berean, herriari «bizi pixka bat» eman nahi izan diote.

Segurtasunari garrantzia eman diote, eta plazara sartzeko

«Egunero egoerari begira gaude, baina momentuz aurrera goaz antolaketa guztiarekin»

MANEX SAEZ DE EGILAZ
IKAZTEGIETAKO ZINEGOTZIA

sarrera bat eta irteera bat jarriko dituzte, jende pilaketak ekiditeko. Herriko txistulariek girotuko dute goiza. Plazan 20 postu ezberdin egongo dira segurtasun tarteak errespetatuz: baserriko produktuak, landareak, edariak, artisau lanak, jantziak, liburuak,... Eta pintura tailerrekoen urteko lanak ikusgai jarrita egongo dira udaletxeko aretoan. «Mugitu gara, eta postu ezberdinak izango dira». Udazkenetik uda-

berrira aldatu dute azoka, eta berezitasun moduan, aurtengoan, landareen postua izango da.

Postuak jartzeko aukerarekin deitu ostean, «eskertu» egin dutela azaldu du, eta horietako asko «harritu» egin direla azoka antolatu dutelako. Jan-edanera-ko aukerarik ez da izango egoera tarteko. Horrez gain, kultura batzordeko kideek egiten duten lana eskertu nahi izan du zinegotziak.

BOLUNTARIOEN BEHARRA

Azoka egunak berak, aurretik eta ostean muntatze lanak egitea eskatzen du, eta horretarako laguntza eskatu dute. Boluntario lana egiteko prest daudenek izena eman beharko dute udaletxean. Alde batetik, larunbatean, hilak 24, 18:00etan, postuentzako karpak muntatu beharko dira, plazan. Bestetik, igandean bertan, 14:00etan azokari bukaera eman ostean, dena jaso beharko da.

Laguntzeko prest daudenek udaletxeko 943 65 33 29 telefono zenbakira deitu beharko dute, eta zein egunetan lagunduko duten adierazi beharko dute. Izena emateko azken eguna apirilak 21, asteazkena, izango da.

Hizkuntzen erabilera neurtzeko boluntario bila dabilta Alegian

Uemak hizkuntzen erabileraren neurtze lanak egin nahi ditu, eta boluntario lana egiteko prest daudenek gaur dute izena emateko azken eguna

E. Maiz Alegia

Alegiako Udalak jakitera eman duenez, orain lau urte hasitako bideari jarraitu nahi dio Uemak, eta aurtun hizkuntzen erabilera neurtuko dute Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide diren herrietan.

Aurtun COVID-19a dela eta, moldaketa batzuk egin dituzte «jasotako datuen fidagarritasuna bermatze aldera». 3.000 biztanletik behera dituzten udalerrietan neurketa kopurua handiagoa izatea aurreikusi du Uemak.

Neurketa hauek herritar boluntarioen bidez egiten dituzte, eta horregatik laguntza eskatu du Uemak. Neurtzaile izan nahi duten herritarrek gaur dute Uemarekin harremanetan jarrita izena emateko azken eguna: «Komenigarria da 3-4 taldeko pertsonak osatzea neurketa egunak euren artean banatzeko».

Apirilaren 19an, astelehenean, 18:00etan, izango da neurtzaileentzat formazioa, *online* bidezko saio batekin. Neurtzaile ariko direnei bidaliko zaie *online* saioan parte hartzeko helbidearen lotura. «Norbaitek ezingo balu ordu horretan saiora joan, aurkezpenaren grabazioa bidaliko zaio», esan dute Uematik.

KREDITU BAT, IKASLEENTZAT

Boluntario lanak egiteko lagun dezakeen hitzarmen baten berri ere badu Uemak. Izan ere, unibertsitateko ikasleen kasuan, EHUrekin hitzarmen bat sinatuko du. Honela, ikasleek aukera askeko kreditu bat lortuko dute Alegiako neurketan 25 orduko jarduna egiteagatik.

Beraz, herrian interesa izan dezakeen ikasleren bat izanez gero, beregain hartu dezake neurketa egiteko ardura egun guztietan, ordu horiek betetzeko.



AUTOAK ERREPIDEANEZ UZTEKO, APARKALEKUA

Amezketako Udalak eskolako sartu-irtenetan egunero sortzen diren auto pilaketak direla eta, arazo horri irtenbide bat eman nahian, aparkaleku berria egokitu du Ergone auzoan. «Aparkaleku berriarekin kotxeak ondo uzteko behar beste toki egongo dela espero dugu», adierazi dute udaletik, eta dei egin diete herritarrei eskola parean «autoak errepidean ez uzteko». Haurrak tarteko daudela kontuan hartuta, auto pilaketek sortzen dituzten arriskuak ekidin nahi dituzte. ENERITZ MAIZ

Adunako liburutegiko funtsa berrantolatu du Ereiten elkarteak

Liburutegi berrira materiala lekualdatu eta antolaketan lagundu du Ereiten elkarteak; Txoko Morea, Memoria Historikoaren txokoa eta tokiko bilduma ere sortu dute

Jon Miranda Aduna

2019ko neguan Adunako Udalak liburutegi berria inauguratu zuen. Ereiten elkarteak funtsaren zati handi bat berrantolatu eta eraikin berrira mugitu du eta bere gain hartu du hori moldatzeak suposatzen dituen askotariko lanak.

Liburutegi zaharrean zegoen funtsaren xahuketa bat egin eta helduen erreferentziazko liburutentzat antolamendu berri bat sortu du Ereitenek. Kontuan izanik Adunakoa herri-liburutegi txiki bat dela, «betiko SHU (Sailkapen Hamartar Unibertsala) ereduaz harago joan eta liburuen antolamendua sinpleagoa» egin nahi izan dute. Honela, ezagutza hiru bloke handitan banatu dute bere azpi atal guztiekin: Ingurumena, Gure mundua eta Euskal Herria. «Adunaren ezaugarrietara ondo doitu eta guztiontzako errazagoa eta ulergarriagoa suertatuko dela espero dugu», esan dute Ereiteneko arduradunek.

Haur liburutegia ere goitik behera berrantolatzen aritu dira. Beharrezko xahuketak egin ostean, fikziozko haur funts osoa adinka eta bildumaka antolatu dute, ez-fikziozko funtsa txukundu eta hauen txaplatak SHU-a jarraituz uniformatu dituzte eta haur komikiei, haur poesiazko liburuei eta beste hizkuntzetan dauden liburuei beraien txo-



Ereiten elkarteak arduratu da liburutegi berria berrantolatzeaz. ATARIA

koa egin diete haur liburutegian bertan.

TXOKO MOREA ETA MEMORIA

Bestalde, udalak hala eskatuta, txoko bereziak sortu eta lehentse dituzte liburutegian. Hala nola, Txoko Morea eta Memoria Historikoaren txokoa deitu dituztenak. Lehenengoan eduki feministak dituzten liburuak bildu dituzte. Bigarrenetan Euskal Herriko fase historiko ezberdinei eta giza eskubideei buruz hausnartzen dutenak.

Tokiko bilduma bat ere sortu dute herriko sortzaileen lanak

eta Aduna eta Aiztondo bailarari buruzko lan ezberdinak elkarrekin bilduta egon eta liburutegian beraien kokaleku berezi eta bereizgarria izan dezaten.

Funtsa birkokatzearen prozesu honek jarraitu egingo duela jakinarazi dute Ereiten elkarteak: «Zaharkitutako funtsa alboratu, berria sartu, kokalekuak fisikoki zein digitalki aldatu... Bizirik dirauen bitartean, horrelakoa da liburutegi bateko martxa». Ereiten elkarteak, honenbestez, udaberria etortzearekin batera, bere esku-hartzea bukatu du Adunako liburutegian.

Merkataritza laguntzeko bonuak berriro

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak hirugarren bonu kanpaina jarriko du martxan apirilean, Tolosa&Co merkataritza elkartearen laguntzarekin. Herriko saltoki eta zerbitzu establezimenduak laguntzea izan zen *Suspertu Tolosa* bonuen lehen asmoa, eta ostalaritza sektoreari bultzada emateko bonuak sortu ziren gerora. Bada, izandako harrera ona ikusita, berriro ere herriko merkataritza hauspotzeko helburua izango duela kanpainak azaldu dute.

Aurtengo kanpaina, gainera, «hobekuntzekin» datorrela aurreratu dute. Bonu mota bakarra salduko dute, 20 euroan, eta bakoitzari 10 euro gehituko dizkio udalak. Hortaz, erosketa txartelen azken balioa 30 eurokoa izango da. Bestalde, kanpainan parte hartzen duten establezimenduek ez dute amaierara arte itxaron beharko diru-laguntza jasotzeko. Aurten, data aurreratu eta laguntzaren %90 maiatzaren jasoko dute merkatariek.

Bonuen *online* salmenta maiatzaren 3an abiatuko dute. «Gainera, aurten, informazio puntu bat ere jarriko dugu Trianguloa

plazan, laguntza behar dutenentzat edo erosketa *online* egiteko baliabiderik ez dutenentzat. Horrela, jende gehiagorengana iritsi ahal izatea ahalbidetu nahi dugu», esan dute udaletik.

IZENA EMATEKO AUKERA

Kanpainan parte hartu nahi duten saltokiek aurrez eman beharko dute izena, eta apirilaren 23ra bitarte dute horretarako aukera, www.suspertutolosa.eus webgunearen bidez (galdetegia beteta) edo 943 69 74 54 zenbakira deituz (10:30etik 13:30era). Webgunean bertan ikusgai dira parte hartzaileek bete behar dituzten baldintzak.

Udaletik esan dutenez, hiri ekonomia babesten jarraitzeko neurrien artean kokatzen da *Suspertu Tolosa* kanpaina. «Oraindik beharrezkoa da pandemiaren ondorioei aurre egiteko eta bertakoa babesteko neurriak hartzen eta laguntza eskaintzen jarraitzea». Helburu horrekin, 90.000 euro bideratu dituzte kanpainara. Bonuei esker, saltoki, merkataritza eta zerbitzuei «arnasa eta babesa emateko», 240.000 euroko inpaktu ekonomikoa sortzea aurreikusi dute.

Ekitaldiak Alkizan eta Berastegin, liburuen egunean

Erredakzioa

Apirilaren 23a Liburuen Nazioarteko Eguna da eta behar bezala ospatzeko tailerra antolatu dute Alkizan, Juan Kruz Igerabiderekin batera. Hizkiekin jolasean ibiliko dira eta *Abezedarioro titir-jario* liburuan oinarritutako poesia-jolasak eta marrazki tailerra eskainiko ditu Adunako idazleak.

Alkizako sei urtetik gorako neska-mutilentzat prestatu dute saioa kultur etxean, 17:00etatik aurrera. Ordu bete inguruko iraupena izango du, baina aurrez izena ematea ezinbestekoa izan-

go da. Horretarako mezua bidali daiteke kultura@alkiza.eus helbidera edo whatsapp bat bidali 688 60 44 66 zenbakira.

Berastegiko Udalak, bestalde, Liburuaren Nazioarteko Eguna-ren harira, ipuin musikatua eta Mikro-ipuina Lehiaketaren sari banaketa antolatu ditu hilaren 23rako. Hain justu, ipuin kontaketa musikatua izango da udaletxean, Ameli eta Xirrikutuen Jos-tunen eskutik, 18:00etan. Ordu-bete berandago, 19:00etan, Berastegiko IV. Mikro-ipuina Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egingo dute, udaletxean bertan.

25

POSITIBO BERRI

Osasun sailak emandako datuen arabera, 11.274 test egin zituzten herenegun, eta horietatik, 1.003 (%8,9) positibo izan ziren. Gipuzkoan, 456 positibo atzeman zituzten, eta 25 Tolosaldean: Tolosan 11, Alegian eta Iruran hiru, Anoetan eta Zizurkilan bina eta Alkizan, Bidania-Goiatzen, Elduainen eta Villabonan bana.

Arnasguneen inguruko tailerra eskainiko dute

ALKIZA // Udalak Uemarekin elkarlanean herritarrentzat formazio tailer irekia antolatu du, hilaren 22an, kultur etxean, 17:00etan. Alkizan euskararekin gertatzen ari dena, Alkizan barrik gertatzen ote den edo udalerrri askotan antzeko joerak dauden planteatuko dute. Parte hartzeko, kultura@alkiza.eus edo 688 60 44 66 zenbakian.

Presoek espetxean egindako artelanak ikusgai asteburuan

TOLOSA // *Askatasuna espetxean eta artea* izenburupean, eskualdeko euskal preso politikoei espetxean egindako artelanen erakusketa jarriko du Tolosako Sortuk asteburuan, larunbatean Preso Politikoen Nazioarteko Eguna dela probestuz. Ostiralean eta larunbatean egongo da zabalik Tolosako kultur etxean, 17:30etik 20:00etara bitarte.

Beka, emakumeen ekarpena ikertzeko

Irurako Udalak egin du beka deialdia; ikerketa proiektuak udaletxean aurkeztu ahal izango dira maiatzaren 7ra arte

Jon Miranda Irura

Irurako Berdintasun sailak ikerketa beka bat deitu du herriko emakumeek historian zehar bete duten paperaz datu berriak argitaratu edota daudenetan sakontzeko. Beka eskatu ahal izateko parte hartzaileek gehienez 15 orriko proiektua aurkeztu behar dute Irurako udaleko erregistro nagusian, maiatzaren 7a baino lehen. Norbanakoez zein taldeek egin dezakete eskaera eta sei bat hilabeteko epea emango du udalak ikerketa burutzeko. 4.000 euroko diru saria izango du beka.

Mendeetan, historia ofizialean, emakumeak «baztertuta» egon direla iritzi dio Noelia Lataburu Irurako Berdintasun zinegotziak eta ikerketa bekarekin emakume horiek arlo kultural, sozial, ekonomiko edo politikoan egin duten ekarpena berreskuratu eta ezagutzera eman nahi dute. «Emakumeek egin dituzten ekarpenak, bai eremu publikoan, bai pribatuan, garrantzirik gabekotzat jo, eta beraz, isilarazi egin dira».

Herriko emakumeek egin izan duten lan hori bistarazteko ahalleginean hasiak dira, esate baterako, Irurako Emakume Taldekoak. Udala haiekin elkarlanean ari dela aipatu du Lataburuk eta aurrera begira herriko emakumeen ibilbide bat sortzeko asmoa dutela jakinarazi du. Proiektua gauzatu ahal izateko laguntza bila jo dute Gipuzkoako Foru Aldundira eta erantzunaren zain daude une honetan. Abiatutako bide hori «indartze» dator ikerketa beka, Berdintasun zinegotziaren esanetan.

Lehenengo aldia da Irurako Udalak gisa honetako deialdia egiten duela eta horregatik ez dute ikerketa gaia gehiegi mugatu nahi izan. Aintzane Agirre udal teknikariak azaldu duenez, udalerriaren errealtateari egindako ekarpena erakutsi behar du ikerketak eta arlo askotatik abiatu daiteke. «Diziplina ugari bateratu ditzake: ikuspegi historikotik landu daiteke, baina baita ekonomikotik, antropologikotik edo hezkuntza arloketik ere». Aldi berean nabarmendu du,

emakume bakar batek edo emakume talde batek egindako ekarpena ere jaso dezakeela ikerlanak.

BIDE BATEN HASIERA

Irurako Udaleko Berdintasun sailaren kanpo aholkulariak, sailako arduradun teknikoak eta arduradun politikoak osatuko dute beka esleitzeko epaimahaia. «Aurkeztuko den memoriaren interesa, bideragarritasuna, gaiaren ezagutza, ikerketaren helburua eta metodologia azaltzerakoan erabiltzen duen argitasuna hartuko ditugu kontuan», esan du Lataburuk. Aldi berean, hautagaiaren curriculum eta genero arloan duen prestakuntza nahiz esperientzia profesionalari begiratu zio erabakia hartzerakoan.

Maiatzaren 7ra arte Irurako udaleko erregistro nagusian aur-

keztu beharko dira ikerketa proiektuak horretarako lanaren izenburua, aukeratutako gaiaren justifikazioa, helburuak, metodologia, informazioa eskuratzeko iturriak, aurreikusitako emaitzak eta curriculum adierazita. Euskaraz aurkeztu beharko da gehienez 15 orriko proiektua. Ikerketa proiektuaren izen bera daraman gutun-azal itxi bat ere utzi beharko da erregistroan eta proiektua aurkeztu duenaren datuak agertu beharko dira bertan: izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia. Ikerketa bekaren oinarriak www.irura.eus webgunean irakur daitezke.

Aukeratutako ikertzaileak 6 hilabeteko epea izango du lana egiteko eta behin betiko dokumentua abenduaren 15ean aurkeztu beharko du udalean. Ikerketa burutzeko 4.000 euro jasoko ditu irabazleak eta



Agirre teknikaria eta Lataburu zinegotzia beka aurkezten udaletxean. J.M.

kopuruaren erdia proiektua aurkezterakoan jasoko du, eta beste erdia berriz, ikerketa lana entregatzerakoan.

«Ez dakigu zein proposamen jasoko ditugun, baina egingo den ikerketa motaren arabera, gero publikatu edo zabaltzeko aukera ere ez dugu baztertzen», esan du Berdintasun zinegotziak. Hori bai, Lataburu eta Agirrek nabarmendu dute ez dela bakarrik Irurako herritarrentzat bideratutako beka izango, interesa duen orok izango du hautagaitza aurkezteko aukera.

Bekaren lehen edizioa izango da aurtengoa eta gehiago etorriko ote diren galdetuta, zinegotziak aipatu du aurtengoaren arrakastaren arabera izango litzatekeela hori: «Nahiago genuke proiektu asko aurkeztuko balira eta pixkana hurrengo urteetan ere ikerketa gehiago lagundu ahal izango bagenitu Irurako udaletik. Guri iruditzen zaiguna da, herriko emakumeek egindako lana orain arte itzalean geratu dela eta nahikoa lan bada goela ekarpen hori berreskuratzen».



'BALIO ERANTZIA' IKUSGAI HERRI ESKOLAN

Joan den astelehenetik eta apirilaren 25era arte Irurako Herri eskolako aretoan 61 irudiz eta hitzez osatutako erakusketa dago zabalik. **Balio erantzia: edertasunari buruzko gogoeta** izeneko erakusketa Ekaitz Goikoetxeak eta Josu Marotok osatu dute. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara egongo da ikusgai eta asteburuetan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Larunbat honetan, bisita gidatu bat egingo dute euskaraz, helduentzat, 18:30ean. Gonbidapena udaletxean eskatu beharko da. J.M.

Gaur egun, hondakinen %70 bereizten da Tolosan

Hondakinen bilketa hobetzeko asmoz, udalak abian jarritako sentsibilizazio kanpainak «erantzun oso ona» izan du; 656 herritarrek hartu dute parte otarraren zozketan

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Hondakinen bilketa datuak hobetu, ohiturak aldatu eta azken aldian herrian atzemandako arazoei irtenbidea ematen saiatzeko, *Birzikla dezagun gehiago eta hobeto* sentsibilizazio kanpaina jarri zuen martxan Tolosako Udalak. Hilabete bat igaro ostean, ekimenak «oso emaitza onak» utzi dituela adierazi du Patxi Amantegi ingurumen zinegotziak. Herritarren aldetik ere, erantzuna «oso ona» izan dela esan du. «Tolosarrek adierazitako interesak, etorkizunera begira ditugun helburuak betetzera doan herria dela ikusi da».

Gaur egungo bilketa datuak hobetze aldera, herritarrek informatzea izan da kanpainaren helburua. «Honen emaitza zehatzak, ordea, denboran zehar ikusiko ditugu. Izan ere, mota honetako kanpainak ez dira hasi eta bukatzen, lanketa pedagogikoak jarraipena izan behar duelako denboran», esan du Amantegik.

Artelaz enpresak egin du hila-betez luzatu den kanpainaren jarraipena eta azterketa. «Lanketa berezia egin du, batez ere, tamaina handiko hondakinen, kartoi komertzialaren bilketaren eta edukiontzi grisera zein marroira botatzen diren hondakinen inguruan. Horrez gain, kartoia uzteko guneak K ikurrarekin margotu dira», azaldu du zinegotziak.

HELBURUA, HIRU LAURDEN

Kanpainaren lehen balorazioa egin ondoren, Amantegik emandako datuen arabera, gaur egun, hondakinen %70 bereizten da Tolosan. «Herritarrek kontzientziatuta daude, eta horren isla dira ditugun bilketa datu onak. Baina horiek oraindik hobetu ditzakegu. 2023rako gaikako bilketa tasa %75era igotzea baita erronka nagusia».

Helburu horretara iristeko, eta herritarrek gehiago kontzientziatzeko helburuarekin, udalak ekimen berriak egin jarraituko duela aurreratu du. «Esaterako, hondakin organikoaren harira, mankomunitatearekin elkarlanean ariko gara, kanpainarako sortutako esku-orriak hainbat



Aiala Ezeiza, Patxi Amantegi eta Iñigo Muñoz, sentsibilizazio kanpainako otarraren zozketaren unean. JOSU ARTUTXA

hizkuntzatara itzuliz, informazioa tolosar guztiengana heltzeko. Gainera, kanpainan zehar herritarren partetik jaso ditugun ohiko zalantzekin txosten bat egingo dugu. Ingurumena zaintzeko eta kontserbatzeko ezinbestekoa da gaikako bilketa egokia egitea, eta aldi berean, herritarrei erraztasunak ematea».

HONDAKIN HANDIEKIN, KEZKA

Kanpaina hastearekin batera, haren berri emateko, lanketa pedagogikoa abiatu zuen udalak. «8.000 esku-orri banatu ziren Tolosako etxebizitza guztietara, hondakinen sailkapenari eta bilketari buruz», adierazi du Iñigo Muñoz ingurumen teknikariak. «Tolosako komertzioetara bideratutako informazio kanpaina

zehatza ere egin da, eta guztietan, kartoia uzteko K guneen inguruko informazioa eman da, puntu guztien kokapena zehazten duen mapa batekin batera».

Hain zuzen, kartoi komertziala eta tamaina handiko hondakinak dira udalaren kezka nagusietako bat. «Hori dela eta, ingurumen hezitzaileek pegatinak jarri dituzte edukiontzi grisetan, baita gaizki utzita agertu diren tamaina handiko hondakinetan ere», esan du Muñozek.

412 BISITA

Bi astez, edukiontziak dauden gunetan, herritarrei informazioa eskaintzen aritu ziren ingurumen hezitzaileetako bat da Aiala Ezeiza. «Guztira, 800 lagunekin hitz egin dugu, eta edu-

kiontzi ezberdinetara bota daitezkeen edo ezin diren elementu jakin batzuen inguruko zalantzak argitu ditugu», adierazi du.

Herriko 362 komertzio eta 47 tabernatarak ere egin dituzte bisitak. «103 establezimendutan ez zuten K puntuen berri, baina gehiengoak adierazi du gune horiek erabiltzen hasiko direla». Bestalde, Ezeizak jakinarazi du tamaina handiko hondakinen birziklapenerako pegatinak mantenduko direla.

Azkenik, hezitzaileek egindako elkarrizketetan parte hartu duten herritarrek, bertako produktuekin osatutako otar bat eskuratzeko aukera izan dute. 656 herritarrek hartu dute parte zozketan eta Arantxa Larrañaga izan da sariduna.

Organikoa konpostatzen dutenei eskainitako ikastaroa

ZIZURKIL // Urte dezente igaro dira Zizurkilen etxeko hondakin organikoak konpostatzen hasi zirenetik, eta denbora horretan, herritar eta familia berriak batu dira birziklatzera. Orain, udalak konpostajearen inguruko formazio saioa antolatu du larunbaterako, 11:00etatik 12:00etara, Zizurkil Herriguneko auzo-konpostagunean. Zalantzak argitzeaz gain, konposta modu egokian nola egin, nola atera eta nola erabili irakatsiko dute adituek.

Txorien kantuak ezagutzeko ibilaldia antolatu dute

ALKIZA // Fagus Alkiza interpretazio-zentroak inguruko txoriak eta hauen kantuak ezagutzeko ibilaldia antolatu du larunbaterako. Mikel Olano basozainak gidatuko du saioa. Alkizako plazan egingo dute hitzordua, 10:00etan. Bost euroko prezioa izango du, baina alkizarrentzat eta 12 urtetik beherakoentzat doan izango da. Parte hartzeko, aurrez eman behar da izena, kultura@alkiza.eus helbidean edo 688 604 466 telefonoan.

‘Ibaiertzeko ipuina’, Galtzaundiren irakurle taldean

TOLOSA // Apirilaren 20an, astearte, egingo du hurrengo saioa Galtzaundik sustatutako irakurle taldeak. *Ibaiertzeko ipuina* izeneko lana izango da hilabete honetako irakurgai eta liburua lantzeko hitzordura gerturatuko da Oihane Amantegi egilea. 19:00etan hasiko da saioa, kultur etxean eta ohiko moduan Yurre Ugartek dinamizatuko du. Parte hartzeko, www.galtzaundi.eus-en eman behar da izena.



zozketak

Atarikideentzat **bi liburu** ditugu



EMARIAK: Emakumeek Historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus



ISASTEGI
~ SAGARDOEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64

ISASTEGI.COM

**DASTATU
UZTA BERRIA**

OSTIRALA, LARUNBATA
ETA IGANDEA
EGUERDIETAN

TOLOSATIK AUTOBUSA

Elkartasun Kilometroa ospatuko dute gaur Uzturpe ikastolan

Aurtengo egitasmoan biltzen duten dirua Ibarrik Misio Taldera bideratuko dute; Ekuador, India eta Hondurasen behar gehien dutenei laguntzeko proiektuak egiten dituzte

Irati Saizar Artola Herria

Ibarrako Uzturpe ikastolak urtero egin ohi du Elkartasun Kilometroa, inguruko eragileren bati diruz lagundu ahal izateko. Aurtengo, hamargarren edizioa egingo dute eta kilometro bakoitzeko jasoko duten dirua Ibarrik Misio Taldeari laguntzera bideratuko dute.

HH eta LH 1, 2 eta 3ko ikasleek ikastolan bertan egingo dute lasterketa, gelaka banatuta, arratsaldean. LH4tik DBHra bitartekoek, gehienez ere lau taldeetan eta musukoak jantzita, ikastolako patioan eremu osatuko dute zirkuitua.

BEHARTSUENEI LAGUNTZEKO

Ibarrik Misio Taldea 1997an sortu zen, eta 2005az geroztik Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde katolikoa da. Xabier Aierza bertako kidea da eta azaldu duenez, «berri pozgarria» izan da Elkartasun Kilometroa bezalako ekimen beraiekin gogoratu izana: «Pandemia egoera dela eta diru sarrerak gutxitu egin zaizkigu eta horrelako ekimenen bidez jakitera ematen dugu egiten dugun lana».

Behartsuenei zuzendutako garapenerako proiektuak finantzatzen dituzte, Honduras, Ekuador eta Indian. Hemen bildutako di-



2018ko Elkartasun Kilometroan, Uzturpeko ikasleak korrika. MIKEL IRAOLA

rua han dituzten kontaktuetara bideratzen dute, eta hango taldeek proiektuak aurrera eramaten dituzte. «Ekuadorren, esaterako, urte askoan bizitu izan da Joxe Mari Garmendia Ibarrik apaiza eta parroki barruko talde baten bidez egiten ditugu proiektuak; eta Hondurasen eta Indian, moja talde batzuekin dugu harremana».

Aierzak azaldu duenez, Indian, dirurik ez dutenentzat hezkuntza dohainik eskaintzen dute, beka batzuen bidez. Hondurasen, berriz, urteak daramatzate etxeak eraikitzen. «Txabolatan bizi dira asko, egoera larrian, eta guk blokeekin etxeak eraikitzen ditugu». Ekuadorren

momentu honetan ez daukate proiekturik esku artean.

Indian ere bi harrera etxe daukate eraikita, prostituziotik eta tratu txarretatik emakume gazteak babesteko. «13 eta 18 urte artekoak daude etxe batean eta 18tik 21ekoak bestean». Laguntza psikologikoa, lanerako formakuntza eta beste eskaintzen zaizkie. Sei urte daramatzate proiektu horrekin lanean eta Aierzak azaldu duenez, momentu honetan guztira 32 emakume daude etxe horietan bizitzen.

Proiektuek gain, haurrak babesean hartzeko erraztasunak ere ematen ditu Ibarrik taldeak. Gazteei hezkuntza prozesuan diruz laguntzeko aukera izaten da.

Berdintasun plana lantzeko bilera egingo dute

Apirilaren 21ean 18:30ean izango da bilera, udaletxeko pleno aretoan; joateko asmoa duenak aurrez izena eman beharko du

I.S.A. Ibarra

Ibarrako Berdintasun planaren inguruan hitz egiteko bilera irekia deitu du udalak apirilaren 21erako. Pleno aretoan izango da, 18:30ean, eta hainbat gai jorratuko dira: batetik, I. Berdintasun Planaren ebaluazioa egingo dute, eta, bestetik, II. Berdintasun Plana diseinatzeko hasiko dira. Parte hartu nahi duenak aurrez izena eman beharko du berdintasuna@ibarra.eus helbidean.

Urteak atzera eginda dator Ibarrik Udalak gizon eta emakumeen berdintasunarekiko duen konpromisoa. Lanketa horrek gizon zein emakumeek eskubide berdinak edukitzea du helburu, eta apustu horretatik hainbat tresna sortu dituzte: I. Berdintasun Planaren diseinua, Indarkeria Protokoloaren lanke-ta eta Feminismo eta Aniztasun sailaren sorrera, besteak beste.

Berdintasun planak «udala gidatzeko tresnak» direla gogoratu du Ibarrik Udalak. Horien bidez, lau urteko epean eta herriko errealitatea ardatz hartuta, «erronkak identifikatu eta aurrera eramaten» ari dira. 2016an egin zuten I. Berdintasun Plana 2016-2020 epealdirako. Datorren asteko bileran, plan hura eta haren aplikazioa ebaluatu eta hurrengo urtetarako plana egiten hasiko dira.

Prozesua hasi berri dute, beraz, hurrengo hilabeteetan horretan lanean arituko da udala. Prozesuaren amaieran, Ibarrik II. Berdintasun Planaren aurkezpene publikoa egingo dute herri-tarren aurrean.

Aurreneko planean bezala, bigarren honetan ere Farapi Kooperatibako kideak izango dituzte aholkulari eta bidelagun. Ibarrik Udalak prozesuan murgiltzeko «prest eta gogoz» agertu da.



Udalak herritarrei dei egin die bileran parte har dezaten. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak



Unax Oiarzabal Gonzalez-Etxabarri

Pirata indartsu baten pare
gogor borroka eginez,
momenturik zailenean ere
etxekoei irriparrez.
Zure ondoan hau bizitzeko
aukera guri emanez.
Zumaian nahiz Ordizi aldean
batera goxo egonez.
Unax, jaso degun danagatik
eskerrikasko bihotzez!

Beti maiteko zaitugu pottoko!
Aitor-Maitane-Libe muxu haundi bat!
Ordiziako osaba-izeko Peio eta Goiatz, lehengusu Oinatz, Haritza eta etxeakoak.

ZUMAIA-ORDIZIA, 2021eko apirilaren 15ean

ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm):	110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm):	160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm):	60 € • Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Hiru puntu etxetik kanpo



Aulkitik

Eneritz Itxaso

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Denok esfortzu handia egin genuen partida aurrera ateratzeko, bagenekien garrantzitsua zela irabaztea, beste taldeei puntuak ateratzeko eta beheko postuetara ez hurbiltzeko.

Ordu bateko bidaia eta gero iritsi ginen, eta iristean notizi txar bat eman ziguten: taldekide bat tek ezin zuela partida jokatu koronabirusa dela eta.

Partida ondo hasi genuen baina Mulier taldeak gol bat sartzea lortu zuen markagailua irekiz. Baina, aurrera jarraitu eta gutxira Zurinek sartu zuen golarekin berdindu genuen partida. Atsedendialdiaren ondoren Ainarak bigarren gola sartu zuen.

Azken minutuetan sufritzea tokatu zitzaigun hiru puntuak etxera eramateko. Partida amaitzean denok pozik geunden, hiru puntuak lortu genituelako. Etxera bueltatzean autobuseko giroa ikustea besterik ez zegoen.

Txapela jantzi du Tolosak gomazko paletan

Erredakzioa

Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketan, Tolosa 2 bikoteak, Arregi eta Erleagak, gomazko paletako txapela jantzi du gizonetako bigarren mailan, Pagazperi 11-25 irabaziz.

Gomazko paletan ere, Anoetako Su-Berri elkarteak bi bikote txapeldunorde geratu dira emakumezkoen maila nagusian. Lehen mailan Su-Berri 3ko Larrartek eta Erasunek 30-22 galdu zuten Hernani 1en aurka. Bigarren mailan, Su-Berriko Lasartek eta Aranburuk 30-12 galdu zuten Hernani 2ren aurka.

Bost final ditu aurretik Tolosalak maila mantentzeko

Areto futboleko talde tolosarrak lehen urtea du Hirugarren Mailan; lehen fasean azken postuan geratu ondoren, bigarren faseari gogo handiz ekin diote

Imanol Garcia Landa Tolosa

Hirugarren Mailan lehen denboraldia egiten ari da areto futboleko Tolosala taldea, eta urte berezia egokitu zaie bizitzera estreina-ko aldi honetan. Lehen fasean beren multzoan azken postuan geratu ziren, eta orain bigarren fasean murgilduta daude, mailaz ez jaisteko borrokatzen. Partida bat jokatu dute eta orain beste bost falta zaizkie. «Bost final izango balira bezala jokatuko ditugu», esan du Jon Kortajarena entrenatzaileak.

Denboraldiaren hasiera gorabeheratsua izan zen taldearentzat. «Ilusioz hasi ginen, gehienontzat maila berria zelako. Badaude taldean Hirugarren Mailan edo Bigarren B Mailan jokatu dutenak, baina taldearentzat egoera berria zen», azaldu du Kortajarena. «Denboraldiko bigarren lagunartekoan positibo bat izan genuen, eta taldean bazegoen aurrera egin nahi ez zuen jendea». Bilera bat egin zuten eta



Hirugarren Mailako Tolosala taldea. TOLOSALA

erabaki zuten nahi zuenak jokatu zuela, eta hasiera batean jokalaria batzuk ez ziren agertu. «Federazioak test batzuk eman zizkigun eta horiek baliatu genituen entrenamenduetarako, horrela entrenamenduak segurtasunez egiteko. Horrekin, utzi zuten jokalaria itzuli ziren, eta aurrera egin genuen».

Nabaritu dute Euskal Ligatik Hirugarren Mailara igotzeak su-

posatzen duen aldea. «Partidak ondo jokatu arren, ez baduzu golik sartzen, beste taldeak sartu egiten ditu, eta azkenean lehen fasean puntu gutxi lortu ditugu», esan du Kortajarena. «Bestalde, kontziente ginen ez ginela maila berrira iritsi eta partida guztiak irabazten hasiko. Hori bai, ilusioak hor jarraitzen du, gure helburua maila mantentzea da, eta hor jarraitzen dugu».

Bigarren faseko lehen partida irabazi dute, Batzarre taldea 10-3 gailenduz. Asteburuan Skorpio Akideba taldearen aurka jokatu dute. Sailkapenean azken postuan dago aurkaria, Tolosala baino hiru puntu gutxiagorekin, baina partida bat gutxiago jokatu du tolosarrek baino. «Partida hori bai ala bai irabazi beharra dugu. Ezin dugu, esaterako, berdinketaren bila joan», esan du Kortajarena.

Zazpi talde daude oraingo fase honetan eta azkena jaisten da mailaz. Hala ere, kontuan izan behar da Bigarren B Mailatik talde euskaldun bat jaisten bada, Hirugarren Mailako azken bigarrena ere jaitsi egingo dela. Beraz, azken bigarren geratzeak agian ez die balio Tolosalakoei. «Geratzen zaizkigun bost partidak irabaztera joan behar dugu», esan du Kortajarena. «Lehenengo partida ondo atera zitzaigun, eta ondo jolastu genuen. Ilusioz gaude, eta ea maila mantentzea lortzen dugun».

Oinarrizko Jubenil Misto taldea osatu du Belabieta Kirol Klubak

Erredakzioa Ibarra

Belabieta Kirol Klubak aurten Oinarrizko Jubenil Misto taldea atera du, 3 uztai eta 2 sokako ariketa batekin. Taldea osatzeko arrazoia azaldu dute klubetik: «Bizitzen ari garen egoera honek aurtengo gimnastika erritmiko-ko denboraldia ere hankaz gora jarri du, eta entrenamenduei eta lehiaketei dagokienez egoera berrira egokitu behar izan dugu».

Taldearen parte dira Inko Oruesagasti, Maddi Iguaran, Nagore Imaz, Olaia Garziarena, Laia Ortiz eta Eider Lasarte gimnastak, eta Aintzane Agirre, Saioa Sorondo eta Laura Navascues entrenatzaileak. Estatu mailako txapelketa batean, Tal-



Oinarrizko Jubenil Misto taldea. BELABIETA

deen Oinarrizko Kopa izenekoa, hartuko dute parte ekainaren lehenengo astean, oraindik lekua

zehaztu gabe badago ere. Klubetik azaldu dutenez, «egun handi horretarako» prestatzeko asmo-

tan, igande honetan epaileen aurrean kontrol bat izango dute Donostian, eta apirilaren 25ean, berriz, Euskadiko Txapelketa Durangon.

BILLABONA FKE
Arratzain futbol zelaia

Publikorik ez da onartzen partiduetan

1. KADETE MAILA Larunbata 17, 11:00etan
BILLABONA F.K.E. - UROLA K.E.

PREFERENTE MAILA Larunbata 17, 16:00etan
BILLABONA F.K.E. - TOLOSA C.F.

OHOREZKO KADETE MAILA Igandea 18, 11:00etan
BILLABONA F.K.E. - AIZKORRI F.T.

Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO APIRILAK 15
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

BABESTUTAKO EDUKIA

Kirol teknikari onak lortzeko, heziketa profesionala

Jarduera fisikoari lotutako hiru ziklo eskainiko ditu Tolosako Gainberri Lanbide Heziketako ikastetxeak; erdi mailako bat, eta goi mailako bi

Kirolari eta jarduera fisikoari lotutako profesional onak hezi eta prestatzeko helburuarekin, 2021-2022 ikasturtetik aurrera, arlo horretako ikasketak eskainiko ditu Tolosako Gainberri heziketa eskolak; erdi mailan, bat; eta goi mailan, bi. Gurutz Aginagalde eskubaloijokalaria ohia da ikastetxeko zuzendaria eta arlo horietako heziketa eskaintza bateratu nahi du.

Erdi mailan, aisialdiko eta natura ingurune gorputz eta kirol jarduerak gidatzeko teknikariak heziko dituzte. Bestetik, gizarte eta kirol irakaskuntzako eta animazioko goi mailako teknikariak eta egokitzen fisiko goi mailako teknikariak prestatzeko zikloak izango dira. Ziklo bakoitzak bi ikasturteko iraupena izango du.

Egitasmoa, ordea, ez da Lanbide Heziketara mugatzen. Izan ere, erregimen bereziko beste formazio batzuk ere eskainiko dituzte. «Aurrerantzean, Kirolaren Lege berria dela eta, arautuak izan beharko dute kirol ezberdinetako monitore edo entrenatzaile izateko federazioek ematen dituzten tituluek, eta eskolara ekarriko ditugu. Horrez gain, fundazio bat sortuko dugu eskolaren inguruan, kirol munduan dagoen heziketa guztia garatzeko. Horrela, ikastetxe berean formakuntza guztia elkartzea lortu nahi dugu, dauden aukera

guztiak hemen eskaintzea. Ondorioz, Gainberri kirol heziketa arloko ikastetxe integrala izango da, erreferentziazkoa eta kirol kutsua izango duena».

Bestetik, ikasle bakoitzaren beharrak eta helburuak ondo ezagutu eta horiek lortzeko jarraipen zuzena egingo dute. «Guk aukeratuko ditugu ikasleak, gure beharren arabera. Oso argi dugu gazteen tutoretza eta jarraipena oso garrantzitsua dela, eta hori egin dezakegu. Ikasleen helburuak eta beharrak ezagutuz, jarraikortasunez lan pertsonalizatua egitea da garrantzitsua. Horrek bereizten gaitu Lanbide Heziketako kirol zikloak eskaintzen dituzten gainerrako ikastetxeengandik».

LANERAKO PRESTATUAK

Plaza kopuruari dagokionez, oraingoz, ez dute mugarik ezarri. «Taldea bat osatuz gero, beste bat garatzeko aukera dugu. Hona etortzen diren ikasle guztiak hartuko ditugu, denek izango dute plaza ziurtatuta. Hori garrantzitsua da, familia asko lasaitasun horren bila datozelako». Ikasleek, gainera, metodologiari begiratzen diote askotan. Gainberri, lan egiteko modu propioa izango dute. «Irakasleen artean, kirolariak eta arloko adituak izango dira. Ikasketei dagokionez, arlo teorikoak %30 hartuko du; praktikoak, berriz %70».



Gurutz Aginagalde Bidasoa Irun taldeko eskubaloijokalaria ohia izango da ikastetxeko zuzendaria. JOSU ARTUTXA

Gainberri, bereziki, lanerako sarbidea erraztu nahi diete ikasleei. Heziketa duala eskaintzen dute horretarako. «Gipuzkoan eta Euskal Herrian, kirol instalazioak kudeatzen dituzten enpresa nahiz aisialdirako elkarte entzutetsuak ditugu gure proiektuan, eta haiekin elkarlanean aurrera eramango dugu dualtasuna, gazte horiek, etorkizun batean ahalik eta hobekien prestatuta egon daitezten. Horrela, ikasketak garatzeko, natura-guneetan eta enpresetan egingo dira praktikak».

Hala ere, lan mundurako jautzia zuzenean eman nahi ez dutenek, arlo bereko ikasketetan sartzeko aukera izango dute. «Gu berriak bagara ere, gidatzen gaituen 20 urteko ibilbidea duen ikastetxe bat dugu atzean. Nazioartean erreferente dira, eta datu bikainak lortu dituzte orain arte, bertako ikasleen %67k baino gehiagok unibertsitaterako pausoa ematen dutelako. Aniztasun handiko jendea elkartzen zaigu, gehienak gazteak, baina askok, gurekin ikasi ondoren, jarraipena ematen diete ikasleak».

Orokorrean, espezialitate bat baino gehiagotarako postuak izan ditzaketen ikasleak hezteko izango da helburua. «Hemendik

irtetean, besteak beste, mendi gidariak, prestatzaile pertsonalak, gizarte nahiz kirol arloko irakasleak edo animatzaileak, turismo enpresetako gidariak edota erakunde publikoetako teknikariak izan daitezke. Azpimarratzekoa da lehen aipatutako ikastetxetik igarotzen diren ikasleen %75ak lortzen duela enpresa batean lan egitea».

BEHAR BATI ERANTZUNEZ

Tolosaldean kirola praktikatzeko joera geroz eta handiagoa dela ikusi zuen Aginagalde. «Mugarri da kirol arloan, eta goi mailako kirolari ugari daude. Gipuzkoan badira halako heziketa zikloak, baina Tolosaldean ez, eta beraz, aukera ederra iruditu zitzaigun, behar bati zentzuzko proiektu batekin erantzuteko». Aginagalde argi du kirola gustuko izatea eta hezitzaile izatea bi gauza ezberdin direla, baina askotan, batera doazela.

Hala ere, kirola eta jarduera fisikoa egiteko joera hazteak, prestatzaile eta gidari onak izateko beharra ere ekarri du azken urteotan. «Eskaria oso handia zen, baina eskaintzen zen formakuntza ez zetorren bat. Ezinbestekoa iruditzen zaigu alor honetako profesionalen beharrezko prestatuntza izatea, inoiz ez baita

horrela izan, eta Gainberri bultzada bat eman nahi diogu. Tolosaldean, gainera, aukera handia dugu, ingurune pribilegiatua delako, ohiko kirolak praktikatzeko gain, mendiko, hipikako edota uretako jarduerak egin daitezke-elako».

Eskualderako, «eskaintza berri bat» dela eta, «harrera ona» izan duela eta «interesa handia» piztu duela nabarmendu du Aginagalde. «Oso pozik gaude. Hainbat ikastetxetako orientatzaileekin jarri gara harremanetan, egunero izaten ditugu deiak, baita elkarriketak ere, bertan prestatu nahi duten ikasleekin eta euren familiekin. Izen ematek ere martxa ona daramate. Tolosaldetik ez ezik, Gipuzkoako beste leku batzuetatik ere hurbiltzen dira gugana, eta horrek indartu egiten gaitu, lanean jarraitzeko».

GAINBERRI KIROL HEZIKETA

Helbidea: Garmendiola aldapa, 2.

Helbide elektronikoa:

secretaria@gainberri.com

Telefonoa: 691958701

Idazkaritza: Astelehenetik ostiralerara (09:00-18:00).

Webgunea: www.gainberri.com

Instagram: @gainberri

Ate irekiak: Maiatzak 16, igandea.